

## GARBIKERREKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Jon Sáenz de Viguera Erkiaga Bilbon jaio zen 1971n.

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, Deustuko Unibertsitatean.

### Lanbide-esperientzia:

1996ko azaroa – 2000ko otsaila: SOCIOS CONSULTORES, S.L.

Kudeaketako aholkularitza estrategikoko enpresan aholkularia. Aholkularitza eta Finantzian jartzen du arreta enpresak, eta bi alorretan egin izan ditu zereginak: Administrazio arduraduna eta Informatikaria, eta parte hartu du kanpo-bezeroen strategiaren, marketinaren, kudeaketa-kontrolaren, analisi ekonomiko eta analitikoaren eta barneko kontu-ikuskaritzaren eta Kontabilitate sistemen alorreko proiektuetan.

2000ko martxoa – 2010eko iraila: Industri Diseinurako Zentrua, A.B. / Bizkaiko Berrikuntza Agentzia, S.A.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Sozietate Publiko honen lantaldean sartu zen, Administrazio, Pertsonaleko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendari gisa; hala, diseinuaren xedetik berrikuntzarenera zabaldu zuten.

2010eko urria – 2017ko maiatza: BEAZ, S.A.U.

2010eko irailean, Bizkaiko Berrikuntza Agentzia, S.A. BEAZ, S.A.U.k xurgatu zuen; horrek, berregituraketa eragin zuen sortu zen Sozietatean, eta Sozietatearen Antolakuntza zuzendari izendatu zuten; egiten zituen zereginak kudeaketa sistemen eta azpiegituren alorra batu zitzaizkien.

2017ko ekaina – 2019ko iraila: GARBIKER M.P. A.B., S.A.

2017ko maiatzaren amaieran, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren mendeko Sozietatean sartu zen, Kudeaketa eta Berrikuntza zuzendari gisa. Edonola ere, 2018ko martxoaz geroztik, berregituraketa egin zenetik, Zerbitzu Korporatiboen zuzendaria da, eta barne hartzen ditu Finantza Zuzendaritza eta Kalitate eta Prozesuen Zuzendaritza, bai eta giza baliabideen eta azpiegituren alorreko zereginak ere.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez (Certificate in Advanced English) idatzi eta hitz egin dezake.